


# Jazza desesperatuentzat

Textua: Alvaro Rabelli

Pozgarria da benetan orain arte ohiko genero literarioen esparruan ibili diren euskal argitaletxeak helduentzako komikiari edota eleberri grafikoari jaramon egiten hastea. *Txalaparta* argitaletxea izan da horietako bat, eta berak **Jose Carlos Fernandes** egile portugaldarraren *Munduko bandarik txarrena* serieko hiru liburuki batera eman berri du argitara, gaztelaniaz zein euskaraz eman ere. Dudarik gabe, *Munduko bandarik txarrena* une honetan Portugalen egiten den komikiaren isla eta erreferente nagusietako bat bilakatu da. **Jose Carlos Fernandesek** (Loulé, 1964) hogeita bost urte zituela ekin zion komikiak idazteari eta 1998tik 2003ra bitartean liburu honetan agertzen diren hiru serieak eman zituen Lisboako **Devir** argitaletxearen eskutik. Izan ere, *Munduko bandarik txarrena* lanari izenburua ematen dion jazz-taldea bi orrialdekoak baino ez diren istorioen haria baizik ez da. Bertan irakurleak ez du narrazio luze, konplexu eta osoa aurkituko, pasadizo laburren katea baizen. Istoriok *one-shot* teknika baliatuaz idatziak dira; hau da, banan-banan eta kolpe batez. Liburuko serie horiek *Utopiaren kioskoa*, *Gauza huts* eta *Garrantzi Gabekoen Museo Nazionala* eta *Babelgo hondakinak* dute izenburu.

*Munduko bandarik txarrena* ez da batere aproposa betiko komiki errazak eta hutsalak laket dituzten irakurleentzat, bai ordea, irakurketarekin batera gure izatearen eta gure gizartearen gaineko gogoeta egin nahi dutenentzat. Istoriok zirrara berezia eragiten diote irakurleari, eguneroko hutsaltasunetik aterarazten dute, zer pentsa ematen diote eta arrazionaltasuna alde batera utzita hausnarketaren bidean jartzen dute. Izan ere, istorio hauek guztiek absurdutik polito edaten dute. Bertako pertsonaiak ilunak dira, desesperatuak, xebreak eta frakasatuak. Lanbide eta zeregin ezin bitxiagoetan dihardute, alferrik jardun ere. Absurduak dira. Baina, jende bitxi hau gure benetako gizartearen isla da, gizakien zenbait portaeraren berri ematen digu, baita gizarte eta beste gizaki batzuekiko jarrera ere nolakoa izaten den ederto batean erakusten du. Ildo horretan, *Munduko bandarik txarrena* lanak ez du inolako konponbiderik eskaintzen, erantzunik ere ez, galderak egiten ditu norberak ondorioak atera ditzan.



**Munduko bandarik txarrena** (A Pior Bando do Mundo)  
Jose Carlos Fernandes. Txalaparta, 2013. 188 orrialde

Estetikari dagokionez, lan honek 50.eko hamarkadaren estetika beltza gogorarazten digu, zine eta literatura beltzarena alegia. Denbora eta lekuak guztiz zehazgabetuak dira, anakroniez beteta. Era berean, marrazkien sepia koloreak hiriko giro hotza eta hila sendotzen du. Giro dekadentea guztiz nabarmena da. Eta giro horren gaintik jazza jaun eta jabe dabilkigu, bitore. *Munduko bandarik txarrena* jazz sampleez jositako soinu banda ederra da, benetako gai errekkurrentea. Ez edozein jazz baina, **Thelonius Monk**-ek hasitako ildoko jazz moderno eta transgesorea topatzen dugu hemen, liburuko pertsonaia hauek bezala, okerreko notak jotzen dituela dirudiena. Eta literatura, ezin ahantz dezakegu liburu honi darion literaturaren ekarria eta eragina. **Borges**, **Italo Calvino**, **Kafka**, **Coelho** eta beste batzuk sigi-saga dabilta orrialdeotan zehar. *Munduko bandarik txarrena*, gozamen hutsa.

